



EBAZPENA (01/2011 esp., Euskal Autonomia Erkidegoko ordainpeko errepideetako ordainbideak eta deskontu-planak)

Osoko bilkura

María Pilar Canedo Arrillaga andrea, lehendakaria

Natividad Goñi Urriza andrea, kidea

Rafael Iturriaga Nieva jauna, kidea

Ibon Alvarez Casado jauna, idazkaria

Vitoria-Gasteiz, 2012ko maiatzaren 9a

Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak (LDEA), adierazitako kideak bertan direla eta María Pilar CANEDO ARRILLAGA andrea txostengile dela, ebazpen hau egin du EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ORDAINPEKO ERREPIDEETAKO ORDAINBIDEAK ETA DESKONTU-PLANEi buruzko 01/2011 espedientean. Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak (LDEZ) hasi zuen hori, ordainpeko zenbait bide-azpiegitura erabiltzeagatik ezarritako deskontu-planen bitartez Araba, Bizkaia eta Gipuzkoak Aldundiek ustez egindako lehia murrizteko jardunbideen ondorioz.

AURREKARIAK

Lehenengoa.- 2010eko uztailaren 20an mezu elektronikoko bat sartu zen Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuan (aurrerantzean LDEZ). Bertan, partikular batek adierazi zuen, ustez, Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legeak debekatutako jardunbideak egin zirela.



Honako gertakari hauek azaldu zituen:

Gipuzkoako Foru Aldundiak BIDEGI enpresa publikoari eman dio Gipuzkoatik igarotzen diren errepideen kudeaketa, eta honek egindako bidaia kopuruaren araberrako deskontu-plan bat egin du. Bada, deskontu-plan horretan parte hartu ahal izateko, hainbat betekizun eskatzen zaizkie bai erabiltzaileei bai zerbitzua ematen laguntzen duten enpresei.

Honakoak dira erabiltzaileek eskatzen zaizkien betekizunak:

- pertsona fisikoa izatea
- ibilgailu arinean bidaiatzea
- zerga-betebeharrak egunean ordainduta izatea
- Gipuzkoan erroldatuta egotea
- “TAG” edo “T bidea” erabiltzea ordainketa egiteko
- Oraitzeko modu hori “erakunde laguntzaile” bateko kontu korronteari lotuta egotea (Kutxa; Euskadiko Kutxa; La Caixa; Banco Guipuzcoano; Bankoa; Caja Rural de Navarra eta Iparkutxa).

Bidaltzaileak kontsultatu zuen ea azken betekizun horrek kolusiozko jokabidea eragin dezakeen.

Bigarrena.- Aipatutako kontsultaren ondorioz, LDEZk egiaztatu egin zuen Araba eta Bizkaiko foru-aldundiek ere antzeko deskontu-planak aplikatzen zituztela euren lurraldeetatik igarotzen diren autobideetako ordainpeko errepideetan.



Hirugarrena.- 2010eko urriaren 1ean, Ekonomia eta Plangintzako zuzendariak ebazpena egin zuen eta, horren bitartez, informazio erreserbatuaren instrukzio-fasea hasi zen, egiaztatzeko ea Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legean azaldutako jardunbideren bat eragin den Euskal Autonomia Erkidegoko ordainpeko errepideetako ordainbide eta deskontu-planekin.

Laugarrena.- 2010eko urriaren 4 eta 5ean LDEZk informazioa eskatu zien Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko aldundiei. Hain zuzen ere, autobideetako bidesarian diru-laguntzak kudeatzeko laguntzaile izan nahi duten finantza-erakundeek bete behar dituzten betekizunei buruzko informazioa eta betekizun horiek betetzen dituzten finantza-erakundeen zerrenda eskatu zitzaion.

Erakunde guztiek emandako informazioa aztertu ondoren, LDEZk erabaki zuen bereizita aztertuko zituela lurralde bakoitzean erabiltzaileek deskontua lortzeko bete behar dituzten betekizunak eta finantza-erakundeek laguntzaile izan ahal izateko bete behar dituzten betekizunak.

Bosgarrena.- 2011ko apirilaren 19an, Ekonomia eta Plangintzako zuzendariak espediente horren inguruko ebazpen-proposamena egin zuen. Horren bitartez, honakoa proposatu zion LDEZk LDEAri:

- Zehapen-espedienterik ez irekitzeko Euskal Autonomia Erkidegoko ordainpeko errepideetako ordainbideei eta deskontu-planei zegokienez.
- Erakunde laguntzailea izan ahal izateko ezarritako betekizunei dagokienez, Arabako Foru Aldundiaren zenbait jarduera sustatzeko lana egiteko.

Ebazpen-proposamen hori egun berean bidali zitzaion Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegi honi.



Seigarrena.- Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak 2012ko maiatzaren 9ko batzarrean eztabaidatu eta erabaki zuen gaia, María Pilar Canedo Arrillaga andrea zela txostengilea.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 49.3. artikulua honako hau dio: *Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluak, Ikerketen Zuzendaritzak proposatuta, lege honen 1, 2, eta 3. artikuluetan debekatutako jokaerak ustez izateagatik hasi beharreko prozedurak ez hastera erabakitzeko aukera izango du, eta ordura arteko jarduerak artxibatzeke aukera, legea urratu izanaren zantzurik ez dagoela irizten baldin badio.*

Lehiaren Defentsari buruzko legearen zortzigarren xedapen gehigarriaren arabera, *Lege honetan Lehiaren Batzorde Nazionalari eta bertako zuzendaritza-organoei buruz egiten diren erreferentziak, hain zuzen ere eginkizun, administrazio-ahalmen eta prozedurei buruzkoak, autonomia-erkidegoetan arlo horretako eskumenak dituzten instrukzio- eta ebazpen-organoei buruzkoak ere badirela ulertuko da, erreferentzia horiek lege honen 13. artikuluan aurreikusitako eskumenen ingurukoak direnean.*

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, apirilaren 12ko 81/2005 Dekretuak (Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia sortu eta Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoan izango dituen eginkizunak ezarri zituen Dekretua aldatu zuen martxoaren 4ko 36/2008 Dekretuak aldatu zuena), alde batetik, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia eta, bestetik, Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzua bereizten ditu. Biak beren eginkizunei dagokienez Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legeak ezarritakora egokitu beharko dira. Hala, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiari dagokio jarduerak artxibatzeari buruzko ebazpena ematea, legea urratu izanaren zantzurik ez



dagoela uste duenean, Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 44. artikularekin bat etorriz.

2. LDEZk LDEA honi azaldutako ebazpen-proposamenak dio, arestian azaldutako gertakariak egiazkoak diren egiaztatzearren egin den informazio erreserbatuaren ostean, ez dela ikusi “Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen aginduak urratu izanaren zantzurik” dagoenik. Hala ere, LDEAri proposatu dio zenbait sustapen-jarduera egin ditzala, diru-laguntza kudeatzeari dagokionez Herri Administrazioaren erakunde laguntzaile izan ahal izateko finantza-erakundeei ezartzen zaizkien betekizun batzuk kentzeko.

3. LDEA, irizteko eta ebazteko eman den espedientea aztertu ondoren, bat dator LDEZk egindako ebazpen-proposamenarekin, jarraian azalduko diren zuzenbideko oinarriak direla eta.

4. Administrazioak zerbitzu jakin bat erabiltzen duten herritarrei emandako diru-laguntza baten kudeaketa aztertzea du oinarri espedienteak.

Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorreko Zioen Azalpenak administrazioaren ikuspegitik azaltzen du diru-laguntza, eta interes orokorrekotzat hartutako zenbait portaera sustatzeko teknika dela dio, baita interes publikoko jarduerak kudeatzeko Herri Administrazioaren eta partikularren arteko lankidetzeta-prozedura bat ere.

Diruz lagunduko den jardueraren berariazko ezaugarria laguntza ematen duen administrazioaren eta onuradunaren arteko harreman juridikoak ezartzen du, eta hirugarren interesdunena ere hartuko da kontuan norgehiagoka dagoen kasuetan. Harreman juridiko hori, beraz, sustapen-jardueratzat har daiteke eta, horien barruan, lotura bereziko harreman juridikoen artean dago. Izan ere, berariazko



eskubide eta betebeharren sorta eratzen da eragindako subjektu guztien artean.

Honela definitzen da sustatzeko administrazio-jarduera: “Administrazioaren ekintza bat da, partikularrei bidezko jarduera, ezarpen edo aberastasunak babestu edo sustatzeko helburua duena, nolabait beharrizan publikoak betetzen dituela edo erabilera orokorrekotzat hartzen dela, baina inor derrigortu gabe eta zerbitzu publikoak sortu gabe”¹.

Lotura bereziko harremanak dira Herri Administrazioa eta zenbait administratu gaitu lotzen dituenak, kasu honetan diru-laguntzaren onuradunak. Harreman berezi horrek botere publiko bati lotutako norbanakoen berariazko *statusa* eragiten du, ez dela gainerako herritarrek duten *status* arrunta. Izan ere, elkarrekiko eskubide eta betebeharren sarea sortzen da Administrazioaren eta subjektu horren artean².

5. Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoetako (Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako) foru-organoek eskumen eskusiboa dute errepide eta bideen plangintza, proiektu, eraikuntza, kontserbazio, aldaketa, finantzaketa, erabilera eta zehaztapenaren gainean³.

Eskumen horiek erabiliz, bereziki bide-azpiegituren finantzaketa eta erabilerari dagokienez, lurralde historikoetako foru aldundiek deskontuak, diru-laguntzak, hobariak, murrizketak edo laguntzak eskuratzeko planak egituratu dituzte lurralde historiko bakoitzean

¹ Auzitegi Gorenaren 1997ko maiatzaren 20ko epaia (1997/4372 JE)

² GARCÍA ENTERRÍA, E., FERNÁNDEZ RODRÍGUEZ, T.R., *Curso de Derecho administrativo*. Civitas ed., 2011, 431. orr. eta hurrengoak. Bertan esaten da lotura bereziko harremana dela norbanakoak herritarren izaera arrunta alde batera utzita kokatzen dituen eremu juridikoa. *Status* juridikoa aldatu eta botere publiko bati lotutako pertsonaren berariazko *statusa* hartzearen ondorioz, marko orokorretik kanpo geratzen da, eta ondorioz berariazko administrazio-ahalmenak ezar dakizkio, orokorra ez den eremu juridiko batean.

³ 27/1983 Legearen 7.7 artikulua. 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia Elkarteko osorako erakundearen eta bertako kondaira-lurraldeetako foruzko ihardutze-erakundearen arteko harremanei buruzkoa.



bizi diren eta bertatik igarotzen diren ordainpeko zenbait bide-azpiegitura erabiltzen dituzten pertsonentzat.

6. Deskontuek, murrizketek, hobariak eta laguntzek, izen ezberdina izan arren, ezaugarri komun bat dute, hau da: funts publikoen doako erabilera, interes orokorreko helburuetarako. Ezaugarri komun hori diru-laguntza publikoaren kontzeptuarekin identifikatzen da. Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Legeak dio diru-laguntza publikoa dela edozein herri-administrazio (estatukoak, autonomia-erkidegoetakoak edo tokikoak) emandako diru oro, betiere honako baldintza hauek betetzen baditu:

- a) Onuradunen kontraprestazio zuzenik gabe ematea.
- b) Helburu jakin bat betetzeko edo proiektu bat gauzatzeko ematea.
- c) Proiektu, ekintza, jarrera edo egoeraren helburua erabilera publikoko edo gizarte-intereseko jarduera bat sustatzea izatea.

7. LDEA honen irizpena jasotzeko azaldu den kasuan ondorioztatu da lurralde historikoetako foru-aldundiek sustatu egiten dutela, euren kabuz edo dituzten bitartekoak erabiliz, ordainpeko bide-azpiegitura batzuen erabilera⁴, diru-laguntzak emanez zenbait betekizun betetzen dituzten erabiltzaileei. Betekizun horiek, hain zuzen ere, diru-laguntza ezartzeko arauan daude azalduta.

Gipuzkoako Foru Aldundiak (BIDEGIren bitartez) eta Arabako Foru Aldundiak, A-68 erabiltzeagatiko diru-laguntzetarako, erakunde laguntzailea izeneko figura erabiltzen dute diru-laguntza kudeatzeko prozeduran. Bada, kasuan kasu diru-laguntza ematen duen herri-administrazioak ezarritako baldintzak betetzen dituzten banku-erakundeak bakarrik izan daitezke erakunde laguntzaileak.

⁴ Arabako Lurralde Historikoan: AP-1 eta AP-68. Bizkaiko Lurralde Historikoan: Artxandako tunelak eta AP-68. Gipuzkoako Lurralde Historikoan: AP-1 eta AP-8.



8. LDEA honi helarazi zaion gaiaren azterketan, bereizi egin behar ditugu foru-aldundien eta diru-laguntzaren onuradun posibleen arteko harremanak, eta foru-aldundien eta diru-laguntzen kudeaketan laguntzen duten finantza-erakundeen arteko harremanak.

Lehenengoak, arestian esan dugun bezala, lotura bereziko harreman juridiko batean daude kokatuta, eta diru-laguntzei aplikatu beharreko berariazko araudian daude ezarrita. Bigarrenak estu daude lotuta lehenengoekin, eta herri-administrazioak eta erakunde laguntzaileak lotzen dituzte.

A. Administrazioaren eta administratuaren arteko harremanaren azterketa

9. Foru-aldundiek errepideen arloan eman zaizkien eskumenak erabiltzeari dagokionez (lurralde historiko bakoitzean bizi direnei bide-azpiegiturak erabiltzeagatiko diru-laguntza publikoak ematearen bitartez), aipatzekoa da foru-aldundiek ez dutela eragile ekonomiko gisa jarduten diru-laguntza publiko horiek ematean⁵. Hala ere, uler daiteke administrazio horiek ahalmen publikoak erabiltzen dituztela bide-azpiegitura batzuen erabilera arrazoizko eta eraginkorra sustatzeko, baita lurralde bakoitzetik igarotzen den bide-sare osoan zirkulazioa hobetzeko ere.

Gauzak horrela, LDEZk ebazpen-proposamenean adierazitakoaren arabera, helburu publikoak lortzeko edo jarduera publikoak sustatzeko dabilta erabiltzen foru-aldundiak dituzten eskumenak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak honakoa adierazi zuen 2011ko azaroaren 23ko epaian: “[...] eginkizun publiko horiek erabiliz, ez du zentzurik izango erakunde horiei hertsiki merkataritzakoak eta ekonomikoak diren kategoriak aplikatzeak,

⁵ Ikusi 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia Elkarte osorako erakundeen eta bertako kondaira-lurraldeetako foruzko ihardutze-erakundeen arteko harremanei buruzkoa.



ezin baitira jarduten duten eremu publikoan txertatu”. Honakoa ere dio aipatutako Auzitegi Nagusiak: “[...] zalantzarik gabe, ez dute merkatu batean ere jarduten, eta daukatena estatuaren subiranotasunari nolabait lotutako erakundeen monopolio juridiko-politiko da.”

10. Hala eta guztiz ere, diru-laguntzei buruzko araudiak bermatu nahi du zerbitzu baten erabiltzaileek (gertakari erabakigarrien bitartez eman zaiela diru-laguntza) diru-laguntza hori jaso ahal izango dutela, eta ezarritako eskakizunek dakartzaten mugek ez dezatela eragin helburua zalantzan jartzea, diru-laguntzei buruzko araudia aplikatuz⁶.

Hori dela eta, bideen erabiltzaileek diru-laguntza eskuratu ahal izan dezaten foru-aldundiek ezarritako betekizunen gaineko eskumenaren ikuspegitik aztertu behar du gaia instantzia honek.

11. Foru-aldundiek ezarritako betekizunak berdinak dira autobidearen tarte guztietan: pertsona fisikoa izatea, ibilgailu arinean bidaiatzea, zerga-betebeharrak egunean ordainduta izatea, ohiko bizilekua dagokion lurralde historikoan izatea, erabilera-maiztasuna jakin bat izatea, eta “TAG” edo “T bidea”, edo “OBE” gailua, erabiltzea ordainketa egiteko. Arabako Foru Aldundiak eta BIDEGIk beste betekizun osagarri bat ere eskatzen dute, honako hau, hain zuzen ere: diru-laguntzaren onuradunek kontu korrante bat izan beharko dute “erakunde laguntzaile” batean.

- **Pertsona fisikoa izatea eta ibilgailu arinean bidaiatzea** betekizunekin, kontuan hartuta diru-laguntzaren helburua ordainpeko erabilera duten bide-azpiegituren erabilera sustatzea dela, bide horien erabilera arrazoizko eta eraginkorra eragingo da, eta lurraldean dauden bide-azpiegituretako zirkulazioa hobetuko da. Horrenbestez, betekizun bi horiek justifikatu egin daitezke.

⁶ Ikusi 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa.



- **Zerga-betebeharrak egunean ordainduta izateari** dagokionez, ezin da ondorioztatu lehia murrizten duenik, eta antolamendu juridikoak herritarrei ezartzen dien betebeharrak betetzeko eskakizuna baino ez da. Horrenbestez, justifikatuta dago.
- **Lurralde historiko edo probintzia jakin batean erroldatuta egotearen** betekizunak ere, printzipioz, ez du diskriminaziorik eragiten. Izan ere, diru-laguntzak hartzen duen autobidearen tartea lurralde beretik igarotzen da, eta bertan eskumena duen goruerakundeak sustatzen du diru-laguntza.
- Gainera, diru-laguntzaren onuradun izan ahal izateko **gutxieneko erabilera kopurua** betetzeko baldintzaren helburua eragindako bide-azpiegiturak erabiltzea sustatzea da, eta arrazoizkoa eta egokia da hori.
- Azkenik, diru-laguntzaren onuradun izan ahal izateko **teknologia jakin bat —“TAG”, “T bidea”, edo “OBE” gailua— erabili behar izateko** betekizuna eta finantza-erakunde bateko banku-kontu baten titular izateko beharraren betekizuna aztertu behar dira.

Ematen du lehiarentzako irtenbiderik egokiena dela diru-laguntza ordaintzeko moduak ahalik eta zabalenak izan daitezela, diru-laguntza eskuratzeko aukerak ez daitezen arrazoirik gabe mugatu, batez ere zirkulazio handia izan dezaketen bideak erabiltzeagatiko diru-laguntzak direla kontuan hartuta. Era berean, argi dago “TAG” edo “OBE” gailuak ez diren beste egiaztatze- eta ordainketa-modu batzuk egon daitezkeela, esaterako kontrol fisikoa ordainlekuan eta eskudirutan edo kreditu-txartelaren bidez ordaintzea, eta horrela ez litzateke ezinbestekoa izango kontu korrontea izatea erakunde kolaboratzailean.

Baina ordainbide alternatibo horiek konplexuegiak izan litezke bide-azpiegitura erabiltzen duten pertsonen ezarritako betekizun guztiak betetzen dituztela egiaztatzeko, neurritz kanpoko edo gehiegizko kosturik eragin gabe.



Horregatik esan dezakegu “TAG” bidez ordaintzeko betekizuna justifikatuta dagoela, egiaztatze- eta ordainketa-sistema hori nahikoa ezarrita dagoelako. Gainera, tresna horiek diru-laguntzaren kudeaketa erraz, eraginkor eta arina egiteko aukera ematen dute eta, beraz, arrazoizkoa eta egokia da.

- Azkenik, onuradunari **erakunde laguntzailea den finantza-erakunde bateko banku-konturen baten titular** izatea eskatzeak ez du zertan lehiaren murrizketa eragin.

Gauzak horrela, kontuan izan behar da edozein banku-erakunde izan daitekeela herri-administrazioaren erakunde laguntzailea. Laguntzailezat hartu ez den erakunde bateko kontu korronteari lotutako TAG izanda pertsona batek deskontuak jaso ezin izanak ez ditu lehiaren eremuko disfuntzioak eragiten. Banku-erakundeek askatasun osoz hartzen dute sistema baten kide egiteko ala kide ez egiteko aukera, eta enpresa-aukera hori ez dago herri-administrazioak ezarritako betekizunen bidez baldintzatuta.

Horrenbestez, instantzia honek ez du lehia murrizten duen jokabiderik ikusi betekizun horretan.

B. Administrazioaren eta erakunde laguntzailearen arteko harremanaren azterketa

12. Arestian aipatu den bezala, erakunde laguntzaileek diru-laguntzen kudeaketa erraztu eta aritzen dute, diru-laguntza ematen duen organoaren izenean eta haren pentzura jardunez. Kasu honetan aztertu egin behar da erakunde laguntzailea izateko baldintzak diskriminatzaileak diren, hau da, hautatutako enpresek nolabaiteko lehia-abantailarik izan dezaketen eta, ondorioz, batzuk onartzeak eta beste batzuk baztertzeak (hipotetikoki) ondorioak izan litzakeen merkatuan, sartzeko oztopoa izan litekeelako zenbait operadorearentzat.



Lehiaren Defentsarako Auzitegiak honela definitu zituen sartzeko oztopoak: “[...] merkatu jakin batean operadore berriak sartzeko gogoak kentzen duten edo zuzenean eragotzi egiten duten zailtasun eta kostu guztiak [...]”⁷. Beraz, esan liteke sartzeko oztopoak daudela merkatu batean sartu nahi duten enpresek euren gain hartu behar dituzten kostuak daudenean, eta kostu horiek txikiagoak direnean dagoeneko merkatu horretan jarduten dutenentzat edo, zuzenean, operadore horiek kosturik ordaindu behar ez dutenean. Merkatu barruan sartzeko oztopoak egotearen ondorio zuzenena prezioak garestitzea edo ezarrita dauden operadoreek zerbitzua hobetzeko interesa galtzea dira.

Lehia Defendatzeko Zuzenbidearen ikuspegitik, merkatu jakin batean sartzeko oztopoak identifikatzea oso garrantzitsua da. Izan ere, oztopoak merkatuan dauden enpresek nahita eragin badituzte euren buruak babesteko eta merkatuko prezioari eragiteko, legez jazarri behar dira, eta arauketa-neurrien bitartez sortu badira, araudia erreformatu behar da, oztopoak kentzeko.

Hori dela eta, ezinbestekoa da sartzeko oztoporik dagoen eta horien jatorria zein izan den aztertzea.

13. Azpimarratu egin behar da enpresei inoiz ez zaiela ezarri behar administrazioaren erakunde laguntzaile izateko baldintza, borondatezko gauza izan behar duela. Horrela, gerta liteke diru-laguntzen planean ezarritako betekizunak betetzen dituzten banku-erakundeek plan horretan erakunde laguntzaile izateko eskaerarik ez egitea herri-administrazioari.

Hala ere, ebazpen honen ondorioetarako, ezberdina izan liteke erakunde laguntzaile izan nahi duten banku-erakundeek ezin dutenean horrelakorik egin herri-administrazioak ezarritako betekizunen ondorioz.

⁷ Ikusi Lehiaren Defentsarako Auzitegiaren (2005) “C95/05 Kontzentrazio Espedientea, Gas Natural/ENDESA”.



Banku-erakunde guztiak diru-laguntza kudeatzeko erakunde laguntzaile ez izateak lehia murrizten duela ondorioztatu ahal izateko ezinbestekoa izango da, alde batetik, diru-laguntza ematen duten administrazioek operadore (finantza-erakunde) batzuentzat diskriminatzaileak diren mugak ezartzea baldintza hori lortzeko eta, bestetik, muga horien ondorioz, hautatutako erakundeek kontsumitzaileek merkatuan eskaintzen dituzten finantza-zerbitzuen inguruan merkataritza-jarrera hobea izatea erraztu ahal izatea.

14. Arestian azaldu den bezala, bai Arabako Foru Aldundiak (AP-68ko tartean) bai BIDEGIk (AP-68ko eta AP-1eko tartetean) banku-erakunde laguntzaileen bitartez kudeatzen dituzte ordainsarien deskontuak.

a. Gipuzkoako egoeraren azterketa

15. BIDEGIk emandako informazioaren arabera “ez dago hautaketa-prozesua arautzeko araurik argitaratuta, ondorioztatu baita bankuren batek erakunde laguntzaile izan nahi baldin badu harremanetan ipiniko dela BIDEGIrekin [...]”. Prozesua guztiz irekita dago erakunde laguntzaile izan nahi duen banku ororentzat eta, beraz, bermatuta dago finantza-erakunde guztien arteko aukeraberdintasuna egongo dela”. BIDEGIk, funtsean, honako betekizun hauek betetzeko eskatzen die erakundeei:

- “TAG” izenekoak prezio murriztuan eskaintzea
- alta eta bajei buruzko datuak hilean behin bidaltzea, formatu jakin batean.

“T bidea” sistema telematikoa oro har ezarritako mekanismoa da, eta edozein banku-erakundek ipin dezake herritarren esku.



Alta eta bajei buruzko datuak hilean behin bidaltzeko beharra diru-laguntza publikoa behar bezala kudeatzeko ezinbesteko betekizuntzat har daiteke.

Horrenbestez, baldintza horiek diru-laguntza behar bezala kudeatzeko beharrezkoak, proportzionalak eta arrazoizkoak direla esan daiteke.

Azaldutakoa oinarri hartuta, instantzia honek uste du BIDEGIk ezarritako betekizunak ez direla diskriminatzaileak.

16. Hala ere, gomendagarria izan liteke, administrazioaren funtzionamenduan eta diru-laguntzen kudeaketan gardentasun handiagoa egoteko, erakunde laguntzaileei eskatutako betekizunei buruzko publizitatea egitea BIDEGIk. Horrela, sendoago bermatuko da erakunde laguntzaile izan nahi duten erakunde guztiei tratu berdina emango zaiela. Publizitate hori erakundearen web gunean azal liteke, erabiltzaile guztiek izan dezaten beharrezko betekizunen berri.

b. Arabako egoeraren azterketa

17. Arabako Foru Aldundiak 560/2001 Foru Aginduan arautu ditu erakunde laguntzaileek bete behar dituzten betekizunak.

Betekizun hauek ezarri dira, besteak beste: Arabako lurraldean gutxienez 13 sukurtsal izatea irekita, eta horietako bat, gutxienez, Aiara Bailarako edozein udalerritan egotea; berriarazo sistema informatiko bat garatzea; eta egindako bidaiak eta ordaindutako diru-laguntzak jakinaraztea onuradunei.

Berriarazo sistema informatiko bat garatzeari eta onuradunei jakinarazteko betebeharra hartzeari dagokienez, berriro esan behar dugu betekizun egokiak direla lortu nahi den helbururako.



18. Instantzia honek, aldiz, ez du iritzi bera erakunde laguntzaile izan ahal izateko Arabako Foru Aldundiak lurralde-ezarpenari dagokionez ezarri duen betekizunaren inguruan.

Arestian esan den bezala, Arabako Foru Aldundiak betekizun hau ezartzen die finantza-erakundeei erakunde laguntzaile izan ahal izateko: Arabako lurraldean gutxienez hamahiru sukurtsal izatea irekita, eta horietako bat, gutxienez, Aiara Bailarako edozein udalerritan egotea.

Arabako Lurralde Historikoaren subentzio eta transferentzien otsailaren 7ko 3/1997 Foru Arauak erakunde laguntzaileen betebeharrak arautzen ditu, eta araudi horretan ez da hautatzeko sistemarik zehazten.

Egoera hori dela, publizitatearen, lehiaren, berdintasunaren eta bazterkeriarik ezaren printzipioetan oinarritako hautaketa-prozedurak ezarri behar direla ondoriozta liteke, araudi komunean ezarrita dagoen bezala, eta ez dela ezarri behar justifikatuta ez dagoen eta merkatuan ondorio negatiborik izango duen diskriminazio-betekizunik.

19. Arabako Foru Aldundiak honela justifikatzen du lurralde-ezarpenaren betekizun hori: “bere oinarria da onuradunen finantza-erakunde laguntzaileekiko irisgarritasun fisikoa bermatzea. Horrela, bermatuta egongo da erabiltzaileek sukurtsalen bat hurbil izatea, ahalik eta erosoan egin ahal izan ditzaten diru-laguntzaren inguruko kudeaketak, eguneroko bizitzako jarduna ahalik eta gutxien oztopatuz [...]. Gainera, kontuan izan behar da Aiara Bailarako herritarrek hobari berezi bat dutela, eta horrexegatik ezarri zen sukurtsal horietako bat, gutxienez, Aiara Bailarako udalerriren batean irekita egoteko betekizuna”.

Aldundiak bere erantzunean esan du kasu batzuetan onuradunen presentzia fisikoa eskatu dela zenbait izapide egiteko, eta horrexegatik komeni dela “nolabaiteko hurbiltasun fisikoa bermatzea



finantza-erakunde laguntzaileen eta diru-laguntzaren onuradunen artean”.

20. Auzitegi hau ados dago LDEZren iritzi honekin: “Aldundiak azaldutako arrazoiak ez dira nahikoak erakunde laguntzaile izateko oztopo horiek ezartzeko.”

Merkatuarentzat kaltegarria izan daiteke erakunde laguntzailea izateko oinarriek justifikaziorik gabeko murrizketak ezartzea lehiari. Bada, murrizketa kaltegarrienen artean nabarmentzekoa da lurralde-ekarpenaren betekizuna, betiere ez bada ezarri justifikazio argi batekin eta merkatuarentzako eta kontsumitzaileentzako onurak eragiten ez baditu⁸.

Arrazoizkotzat har liteke onuradunei, ahal den neurrian, erakunde laguntzaileetarako sarbide fisikoa erraztea, era berean diru-laguntzetarako sarbidea ere errazteko. Hala eta guztiz ere, kontuan izan behar da erakunde-laguntzaileen kopuru itxirik ez dagoenez, erakunde pribatuek kategoria hori lortu ahal izateko aukera ez litzatekeela mugatu beharko, enpresa batzuentzat sartzeko oztopo izan litezkeen neurritz kanpoko betekizunak ezarriz. Horrela, enpresa batzuek erabiltzaileentzat eraginkorrago izan daitekeen zerbitzuren bat emanaz gero, erabiltzaileak izango lirateke, askatasunez hautatzeko duten gaitasuna erabiliz, merkatuaren funtzionamendu egokia arautuko luketenak.

Gainera, finantza-erakundeak lurraldean ezarrita ez egoteak ez du esan nahi diru-laguntzen onuradun posibleek ezin dutenik horiengana iritsi, batez ere, kasu honetan bezala, bankuen Internet

⁸ Lehiaren Batzorde Nazionalak, Administrazio-kontratazioari buruzko gidaliburuan, honakoa ezarri zuen: “Debekatutakotzat hartuko dira klausulen erreferentzia guztiak baldin eta horietatik tratu-ezberdintasunak erator badaitezke adjudikaziodunaren nazionalitatearen, hizkuntzaren, egoitzaren edo lurraldearen arabera, nahiz eta zeharka izan, esaterako eremu geografiko bati lotutako esperientzien lehentasuna, edo balizko adjudikaziodunek erreferentziazko lurraldean instalazioak izateko eskakizuna”. Interesgarria da, bere garaietan berria izan zelako, Lehiaren Defentsarako Auzitegiaren ebazpen bat (313/92 espediente, 1992ko azaroaren 20koa). Bertan lehiaren kontraktatzat eta arau-haustetzat hartzen zen lehiaketetan parte hartzeko aukera lurralde arrazoiengatik mugatzeko jardunbidea.



bidezko garapenak eta posta-zerbitzuen garapenak erraz konpon dezakeelako hurbiltasun fisikoaren gabezia.

21. Arestian aipatutako arrazoiengatik, instantzia honek uste du 560/2001 Foru Aginduan erakunde laguntzaileak hautatzeko azaltzen den irizpide hori diskriminatzailea dela eta lehia murrizten duela ondoriozta daitekeela eta, ondorioz, kendu egin beharko litzatekeela.

Hori guztia dela eta, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak honakoa eman du:

EBAZPENA

LEHENENGOA: Onetsi egingo da Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuaren ebazpen-proposamena, zehapen-espediterik ez irekitzeko.

BIGARRENA: Agindeia egingo zaio BIDEGIri, banku-erakundeei erakunde laguntzaile izateko eskatzen zaizkien betekizunen publizitatea egin dezan bere web gunean.

HIRUGARRENA: Agindeia egingo zaio Arabako Foru Aldundiari, 560/2001 Foru Aginduan erakunde laguntzailearen kategorian sartzeko ezarritako betekizunak azter ditzan, eta lehiaren araudiaren kontrakotzat har daitezkeenak bertatik ken ditzan.



Ebazpen hau LDEZri, Lehiaren Batzorde Nazionalari, salatzaileari eta salatuei jakinarazi beharko zaie. Agerraraziko da ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen duela eta bere kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipini ahal izango dela. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan ipini beharko da errekurtsoa, bi hilabeteko epean, jakinarazten denetik aurrera zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko maiatzaren 9a

LEHENDAKARIA

IDAZKARIA

KIDEA

KIDEA



<u>EBAZPENA (01/2011 esp., Euskal Autonomia Erkidegoko ordainpeko errepideetako ordainbideak eta deskontu-planak)</u>	<u>1</u>
<u>AURREKARIAK.....</u>	<u>1</u>
<u>ZUZENBIDEKO OINARRIAK</u>	<u>4</u>
<u>A. Administrazioaren eta administratuaren arteko harremanaren azterketa</u>	<u>8</u>
<u>B. Administrazioaren eta erakunde laguntzailearen arteko harremanaren azterketa</u>	<u>11</u>
<u>a. Gipuzkoako egoeraren azterketa</u>	<u>13</u>
<u>b. Arabako egoeraren azterketa</u>	<u>14</u>
<u>EBAZPENA.....</u>	<u>17</u>